

ANIZTASUNA



Jean Michel Etchecolonea

EGUNGO EGOERA

Berdintasuna herritar guztiak eskubide eta betebeharreri dagokienez parekatzen dituen printzipioa dela kontuan hartuta, gizarte-aurkakotasunen desagerraraztea bultzatzen dugu, sortutako aberastasuna birbanatzearen bidez gizarte osoaren ongizatea ziurtatu ahal izan dadin. Ildo horretan, erabat baztertzen dugu jaioterria kategorizazio-irizpide gisa erabiltzea, herri honetan bizi garen guztiok euskal herritarrek garelakoan baikaude, jaiotza, jaiotza lekua, sexua, sexu-orientazioa, sinesbidea, etnia eta abar edozein izanik ere. Berdintasunaren printzipioaren arabera, eskubide, betebeharrak eta aukera berdinak dagozkigu, eta administrazio publikoari dagokio hori bermatzea.

Jakin badakigu arrazoi ekonomiko, politiko, kultural eta sozialek eragindako migrazio-fluxuak direla eta euskaldun asko eta asko barreiatu direla mundu osoan, eta, era berean, jatorri askotako pertsona eta talde ugari iritsi direla Euskal Herrira. Horren ondorioz, Euskal Herria askotarikoa da herritarren jatorriari dagokionez, eta arlo horretako politikei era integralean ekiteko beharrezkoak diren eskumenak eduki ez arren, migrazioaren eta aniztasunaren eremuan paradigma aldatzea eta ikuspegi propio, zeharkako eta integral bat txertatzea proposatzen dugu. Ikuspegi horren printzipioak, nolahi ere, giza eskubideen babesa eta aniztasunean oinarritutako bizikidetzaren aberastasuna izango dira.

HELBURU OROKORRA

Ezin dugu ahaztu funtsezkoa den alderdi bat, hots, hiru lurralde historikoak mendebaldeak sorrarazten dituen gerretatik ihesi doazen eta bidezko asilo-eskubidea baliatu nahi duten pertsona guztientzako harrera-lekutat hartzeko beharra. Era berean, herritartasun unibertsalari lotutako eskubideak aktiboki defendatzen ditugu, eta ikuspegi propio batetik lantzen ditugu.

Migratzaile eta errefuxiatuei eta haien bidezko eskubideak bermatzeko lan egiten duten erakundeei baldintzarik gabeko babesa bermatu nahi diegu.

LEHENTASUNEZKO HELBURUAK



HERRITARTASUN UNIBERTSALARI LOTUTAKO ESKUBIDEEN DEFENTSA AKTIBOA
Horretarako, honako alderdi hauetan oinarrituko gara lehenik eta behin:

Atzeritarren legearekiko erabateko desadostasuna, eskubideak urratzen dituen lege arrazista delako.

Migrazioaren eta aniztasunaren arloko politika propioak eta baliabide egonkor eta iraunkorrez hornituak garatzea. Politika horien printzipioak herritartasun globala eta herrien arteko elkartasuna izango dira, eta pertsona guztientzako eskubide guztien babesa izango da migrazioaren arloko politika publikoen ardatz egituratzailea.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta lortzeko 3 urtetan errolatuta egoteko betekizuna desagertzea.

Gizarte-zerbitzuak doan eta baldintza berdinetan eskuratzeko aukera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonak bereziki kontuan hartuta.

Asilo, babes eta aterpearen arloko politika propioak diseinatu eta garatzea. Horretarako, beharrezkoa izango da migratzaile eta errefuxiatuen eskubideen defentsan inplikaturako agente sozialen laguntza lortzea, haien proposamenak lotesleak izatea politika publikoak lantzean, eta baliabide ekonomiko eta giza baliabide guztiak eskaintzea Giza Eskubideen defentsan betetzen duten zeregin paregabea garatzen jarraitzeko.

Paradigma-aldaketa bat sustatzea, eta migrazio-politikak ikuspegi propio, zeharkako eta integral batean oinarrituta bultzatu eta kudeatzea.

Elkarren arteko errekonozimenduan oinarritutako politika eta dinamika berriak abian jartzea eta asimilazio-eskemak alde batera uztea.

Erakundeei presioa egiteko hainbat mekanismo ezartzea, birkokatzeke zain dauden errefuxiatuei berehalako harrera egin ahal izateko.



ANIZTASUN-POLITIKAREN ARLOA PRESIDENTZIAN KOKATZEA

Zuzendaritza espezifiko bat sortu behar da, sailen arteko zeharkakotasuna diseinatu, koordinatu eta ezartzeko.

Berdintasunean oinarritutako Aniztasun eta Bizikidetzarako Akordio bat garatu eta bultzatzea, eta, agente sozial, sindikal eta politikoekin, enpresa- eta erakunde-arloko agenteekin eta elkarte propioekin batera, aztertzeke eta erabakitzeke esparru egonkor bat sortzea.

“Berdintasunaren inguruko jakintzatik errekonozimendura” programa diseinatu, ezarri eta bultzatzea, eta elkarren arteko errekonozimendua, aniztasunean oinarritutako bizikidetzaren balio positiboa eta gizarte-kohesioa sustatzea.

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Estrategia diseinatu eta garatzea.

Euskara ikasteko eta hizkuntza-murgiltzearen eredu txertatzeko doako aukera erraztu eta bultzatzea.

Emakume migratzaileak ahaldu eta ikusarazteke aukera sustatzea eta horren inguruan sentibilizatzea, eta etxeko langileek jasaten duten esplotazio-egoera bereziki azpimarratzea, gehienak emakume migratzaileak baitira.

Legeen proiektu guztietan aniztasunaren inguruan aurkeztu beharreko aginduzko ebaluazio-txostenei buruzko araudi bat onartu eta garatzea.

Migratzaileentzako aholkularitza juridikoko doako zerbitzua.

Iristen diren pertsona guztiei (jatorria edo migrazio-inguruabarrak edozein izanik ere) eskaini behar zaien eta zerbitzu publikoak (gizarte-zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, laneratzeko laguntza eta abar) lortzeko aukera bermatuko duen harrera integraleko programa.

Gobernu-arlo guztietan (osasuna, hezkuntza, gizarte-politikak, berdintasun-politikak eta abar), aniztasuna gizarte-eraldaketarako eragile gisa bultzatu eta azpimarratzera bideratutako estrategiak zehazteke atal espezifiko bat gaitzea.

Agente sozialekin sentibilizazio-plan integral bat garatzea, euskal herritarrek migratzaile eta errefuxiatuek dakartzaten onura ugarietz ohartarazteke eta egun dauden estereotipoei aurre egiteke.



HARRERA, ANIZTASUN ETA BIZIKIDETZARI BURUZKO LEGEAREN PROIEKTUA GARATZEA

Gorroto delituei aurre egiteko Euskal Behatokia sortu.

Akordioari araudi-estaldura emateko beharrezkoak diren araudi-neurriak, neurri teknikoak eta aurrekontu-neurriak gaitzea.

Herritar guztien eskubide politiko eta zibilak bermatzeko beharrezkoak diren araudi- eta aurrekontu-neurriak abiaraztea, genero-ikuspegia eta gazteen eta adingabeen egoera kontuan hartuta.

Agente sozial, politiko eta sindikalekin migratzaile eta errefuxiatuen eskubide guztiak bermatzeko aukera emango duen Lege bat adostea.



PARTE-HARTZEAN OINARRITUTAKO DEMOKRAZIAREN IKUSPEGIA

Administrazioaren barruan parte hartzeko organo bat sortzea. Organo horretan, migratzaile eta errefuxiatuekin zuzenean hitz egiteko aukera izango da, eta ekarpenak lotesleak izango dira politika publikoak garatzeko garaian.